

6. BEZEROAREKIKO HARREMANAK:

Bezeroak lortzeko iragarkiak egingo ditugu, iragarki hoiek sare sozialetan egingo ditugu, instagram, facebook, twitter... hauetan egitea izango litzateke egokiena oraingo gazteek hori kontsumitzen dutelako gaur egun.

Bezeroak mantentzeko aplikazioan premiuna daukagu, hilabetero 5 euroko kostuarengatik, beherapenak egongo dira eta aplikazioaren hobekuntzak ere bai.

Bezeroarekin komunikazioa mantentzea beharrezkoa da, eta horretarako komunikabide asko dauzkagu, horrela bezeroaren konfiantza lortuko dugu.

Laguntza pertsonalean, telefono zenbaki bat eta txat pribatu bat egongo da gure langileen batekin dituzten arazoak eta zalantzak argitzeko.

Autozerbitzuari dagokionez, dena gure laguntzarik gabe egin dezakete, adibidez, ordainketa eta aplikazioaren erabilera.

Komunitateari begira, erabiltzaileek txat pribatu bat edukiko dute, haien artean hitz egiteko eta ikasteko garaian zalantzak haien artean konpontzeko.

